



Arartekoaren ebazpena, 2011ko urriaren 18koa. Horren bidez, amaitu da ustezko laneko jazarpenagatik jarri zen salaketa bati buruzko jardute-prozedurari dagokion kexa-espeditentea.

Aurrekariak

1. Salatuak, lanean ustezko jazarpen moraleko egoera baten erantzule gisa kexa bat aurkeztu zuen erakunde honen aurrean administrazio nagusiaren eta bere erakunde autonomoen eremuan laneko jazarpen morala eta sexuala gertatzen denerako ezarritako jardute-prozedura izapidetu zen modua zela-eta.

Kexaren arrazoiek Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren aurrean gora jotzeko dagokion errekurtsua aurkeztera bultzatu zuten arrazoiekin bat egiten zuten. Errekurtso hori, adierazi zuenaren arabera, erantzuteke zegoen oraindik ere.

Egoera hori buruan izanda, gure hasierako esku hartzea errekurtsu horri eman nahi zitzaion ebazpen arrazoitua ezagutzera bideratu zen.

Gai horretaz emandako erantzunean, Justizia eta Herri Administrazio sailburuak zera adierazi zion erakunde honi:

“Gaurdaino ez dela inolako ebazpenik eman horri dagokionez eta, ondorioz, urtarrilaren 13ko 411999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.1 artikuluan ezarritakoari uko egin gabe, errekurtsu hori ezetsizat jo behar da hiru hilabete baino gehiago igaro baita ebazpenik eman gabe, aipatutako Legearen 115.2 artikulua arabera, administrazio-bideari amaiera ematen zaio eta dagokion bide judiziala zabalik geratzen da, 109. artikulua lege horren 43.3 artikuluari dagokionez ezartzen duenari jarraituz.”

Hori zela-eta, erakunde honek administrazio isiltasuneko egoeren inguruan emandako ebazpenak direla-eta behin eta berriro adierazi dituen gogoetak errepikatu behar izan zituen eta, azken finean, bideratzeke zegoen errekurtsuaren ebazpen arrazoitua gomendatu behar izan zuen, berariaz ebazteko beharraren legezko oroitzapena adierazita.

3. Nahitaezko errekerimendua egin ondoren, azkenik, Justizia eta Herri Administrazio sailburuak erakunde honi jakinarazi zion proposatutako errekurtsua ukatzen zuen agindu bat eman zela.





Azken ebazpen horren ikerketak, baita espedientean bildutako gainontzeko agiriek ere, honako oharpidetak eskatzen dituzte.

Gogoetak

1. Administrazio nagusiak lan jazarpeneko salaketak dauden egoeretan jardute-prozedurak abian jartzeko hartutako konpromisoa hainbat agindutan bildu da. Horien bidez prebentzio neurriak eta jardueraren prozedura arautzen dira (2006ko urriaren 4ko Agindua -abenduaren 27ko 245. EHAA) eta ebazpen fasean jarduten duen ikerketa batzordearen antolamendua eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen dira (2007ko urriaren 9ko Agindua -azaroaren 21eko 224. EHAA).

Laburbilduz esan dezakegu prozedura hori, bitartekaritza lana bidera ezin daitekeenean, ebazpen fase baten izapidetzea biltzen duela, ikuskaritza batzorde bat eratuz. Batzorde horri alde aurretiko hainbat jardura gomendatzen zaizkio, espedientean bildutako agiriak ikusita, salatutako gertakariak lan jazarpenaren osagarri diren edo ez zehazte aldera, horrela bada, ikerketa amaitutzat emateko edo harekin jarraitzeko, antolamendu eta funtzionamenduko araudian xedatutako hurrengo izapidetak burutuz.

2. Hizpide dugun kexa sortu duen kasuan azpimarratu behar dugu, behin ikerketa batzordea eratuta, alderdiei eraketa horren berri eman zitzaiela, espedientean bildutako agirien kopia bidali zitzaiela eta alegazioak edota ezesprenak egiteko epea jakinarazi zitzaiela.

Lehen bileran (gai-zerrendan 3. eta 4. gai gisa *el estudio de la documentación obrante en el expediente y el decidir dar por terminada la investigación, o bien continuar con la misma, en cuyo caso, determinar las actuaciones que se van a llevar a cabo en esta fase y designar la persona que se encargará de las tareas de investigación* biltzen zirenak), ikerketa batzordeko kideak ados egon ziren prozeduraren aldeak deitu behar zituztela elkarrizketa bat egin eta euren idazkietan alegatzen zituzten gertakariak eta egoerak benetan gertatu ote ziren adierazteko zegokion ikerketa hastearen edo ez hastearen inguruko edozein erabaki hartu aurretik.

Hainbat saiakera hutsen ondoren, aldeekin elkarrizketa egin zituzten. Elkarrizketa horien ondorioz, batzordeko kideek uste izan zuten ezinezkoa zela lan jazarpen bat egon ote zen erabakitzea, izan ere, alde bakoitzeko elkarrizketetan bere garaian egindako alegazioak berresten ziren. Ondorioz, elkarrizketekin jarraitzea beharrezkotzat jo zuten, alegatutako gatazkaren egoeraren lekukoekin egin beharrekoa.



Azkenik, bosgarren eta azken bileran, batzordeak ikerketari hasiera ematea ez zegokiola erabaki zuen, gertakariak lan jazarpenaren osagarri ez zirela uste baitzuen. Hala eta guztiz ere, batzordeak zera hausnartu zuen: *“aunque no se aprecia en este caso una actuación premeditada que reúna las condiciones de acoso laboral, en sentido estricto, sí se advierte, por un lado, la existencia de un comportamiento indebido y reprobable, impropio de quien ejerce funciones directivas, prolongado en el tiempo y que ha repercutido negativamente en la relación personal y profesional de ambas partes y, por otro lado, un conflicto que la trabajadora ha sentido como una agresión a su persona”*. Halaber, zera antzeman zuen: *“la existencia de un conflicto interpersonal, cuyo efecto inmediato ha sido un distanciamiento cada vez más profundo e irrecuperable entre las partes. En definitiva, la situación de conflicto generada se fundamenta en una comunicación deficitaria, cuando no conflictiva y tóxica entre ellas”*.

3. Kexagilearen ustez bere kasua ezagutu duen ikerketa batzordearen jardunak ez du bat egin lehen kontuan hartuzkoan aipatutako aginduetan xedatutako prozedurarekin.

Adierazi duenaren arabera:

“...la toma en consideración de la queja (...) no exige la realización de investigaciones ni interrogatorios, ya que únicamente se trata de resolver, en una reunión, si los actos denunciados cumplen una triple condición:

- *ser constitutivos de acoso*
- *haber tenido lugar en el contexto de la “organización” y no fuera de ella.*
- *No datar de un pasado lejano*

(...) lejos de tomar en consideración la queja y resolver sobre su admisibilidad, la Comisión habría puesto en marcha un procedimiento de investigación desconectado de la normativa, sin nombrar instructor, pero desarrollando de hecho todas y cada una de las diligencias pertinentes para esclarecer los hechos denunciados

(...) la Comisión ha resuelto (...) que la queja no ha merecido alcanzar la fase de investigación

(...) Sin embargo, el informe que la norma exige para motivar tal decisión despliega toda una serie de argumentos vinculados a fuentes y elementos ajenos a la denuncia, presumiblemente contenidos en los interrogatorios y entrevistas realizadas a partes y testigos. En particular, el informe concluye en la existencia de un “comportamiento indebido y reprobable, impropio de quien ejerce funciones directivas, prolongado en el tiempo y que ha repercutido negativamente en la relación personal y profesional entre las partes.”



Azken finean, kexagilearen arabera, ikerketa bideratzean aldean babesa zaintzen duten bermeak alde batera utzi dira ustezko alde aurretiko jarduera batzuen babesean.

4. Justizia eta Herri Administrazio sailburuak, salatuak egindako gora jotzeko errekurtsioa ebatztean, berriz, ikerketa batzordearen jardura baieztatu du, izan ere, argudiatu duenaren arabera, ikerketarik ez hastea erabakitzen den kasuetan ez da inolako entzunaldi izapiderik xedatzen, aldeei erabaki horren berri ematea ez bada.

Bestalde, adierazi duenari jarraiki, batzorde horrek jazarpen morala edo sexuala gertatu den zehazteko jardura egokiak burutzeko eskumena dauka. Kasu honetan hainbat elkarrizketa izan dira, adierazitako kasuaren inguruko bere iritzia osatzeko.

Zehatzago, zera azaldu du horren guztiaren inguruan:

“Que en este orden de cosas la Comisión ha optado por realizar las entrevistas con las partes en un mismo día, pero de forma separada, al igual que se ha hecho con los demás entrevistados (...) Que especialmente, en el caso de estos últimos, las entrevistas se han realizado voluntariamente y con un compromiso de confidencialidad, por lo que el contenido de las mismas no se ha incluido en el acta que se ha levantado de las respectivas sesiones, sino que las anotaciones que se han tomado de las mismas han formado parte de los documentos de trabajo que la Comisión ha utilizado para redactar el informe final en el cual se contiene el resumen de las mismas. Que como documento de trabajo no forma parte del expediente administrativo, al igual que la normativa utilizada u otros documentos de consulta”.

5. Erakunde honen ustez oinarrituta daude alderdi salatuaren kexa eragin duten prozedura-alegazioak, izan ere, batzordeak helburu horrekin xedatutako baldintzekin bete ez duen ikerketa prozedura sustatu du.

Laneko jazarpen moral eta sexualeko egoeretan bideratu beharreko jardute-prozedura eta prebentzio neurriak arautzen dituen 2006ko urriaren 4ko Aginduaren 21. artikulua aldez aurretiko jardueren irismena lehen bilera batera mugatzen du. Bertan, espedienteen bildutako agiriak aztertuta, batzordeak ebatzi beharko du salatutako gertakariak lan jazarpeneko osagarriak diren edo ez ikerketa amaitutzat jotzeko edo, osterantzean, harekin jarraitzeko.





Argi dago ez ditugula zalantzan jartzen batzordeak jazarpen morala edo sexuala egon ote den zehazteko duen ahalmena, sailburuak ebazpenean adierazten duen moduan, baina kontuan hartu behar dugu ahalmen horiek berariaz aipatzen dituen artikulua ikerketaren fasean gaineratzen dela.

Akten irakurketaren bidez egiazta dezakegu hizpide dugun kasuan ikerketa batzordeak ezin izan zuela zehaztu, bere lehen bileran, gertakariak jazarpen moralaren osagarri ote ziren eta, horregatik, jarduera gehiago egitea erabaki zuela, baina ikerketarako xedatutako formaltasunik gabe: instruktorea izendatzea, bileren eta jardueren aktak gauzatzea, amaierako espedientearen bista, etab.

Bestalde, kontuan daukagu fonrmen izaera instrumentala deritzena. Eta hori azpimarratu nahi dugu, izan ere, hasitako jarduerak jazarpenik egon ez dela pentsatzeko izan dituzten arrazoiak modu arrazoituan azalduko lituzkeen txosten batekin amaitu izan balira eta horren ondoren Funtzio Publikoko Sailburuordetzak ikerketa hastea egokia ez zela zioen ebazpena eman izan balu, egokitze jotzen zituen prebentzio edo antolatze neurri zuzentzaileak proposatuz (araudiaren 12. artikulua) kexagile interesdunak ez zukeen erakunde honen babesa eskatu behar izan.

Hala ere, batzordearen azken txostenak hainbat gogoeta biltzen ditu salatutako alderdiaren lan profesionalari eta euren artean zegoen gatazkari dagokionez. Hori guztia, ikerketarako xedatutako bermeen babesean gauzatutako jardueren emaitza ez izatean, ebazpenean eskatutakoak oinarri hartzen du salatuak hitzez hitz zera adierazten duenean:

“Que sea anulada la Resolución (...), ordenando su reposición, debiendo el órgano encargado de resolver emitir una en la que se limite a establecer los motivos de inadmisión según lo establecido (...)

O, en su caso, que se comine a la Comisión a señalar los elementos de juicio sobre los que la misma se apoya para llegar a tales conclusiones

Que se ponga a disposición de la compareciente el completo de actas y documentos de trabajo recopilados por la Comisión, en tanto que partes de un expediente conducente a la adopción de una decisión en la que es interesada.”

Zentzu horretan, erakunde honen ustez, onartu behar dugu batzordeak jarraitutako jarduera, ikerketa fase bat ekiditean, bermeak gutxitu dituela eta hori guztia salatuak bideratutako jardueren edukiak eskuratzeko aukera izan ez duen neurrian eta ondorioz, bere defentsarako egokiak ziren alegazioak egin ezin izan ez dituen neurrian. Hori dela-eta, zoritxarrez, gora jotzeko errekurtsioak ezin izan du antzemandako akatsen hutsa konpondu.





6. Kexagileak ikerketa batzordearen lana ere zalantzan jarri du, izan ere bere jarduerak esleituta dituen funtzioen erabileran boterearen desbideratze nabarmena islatu du horiek erabili baititu *"para promover un procedimiento de investigación carente de garantías y ajeno a norma procedimental alguna, y que ha culminado en una resolución, que , si bien es formalmente favorable a la compareciente, resulta sustancialmente inaceptable, al atribuirle un comportamiento... indebido y reprobable, impropio de quien ejerce funciones directivas...."*

Ongi da, arrazoibide honi dagokionez, ez dugu elementurik antzeman Justizia eta Herri Administrazioako sailburuak gora jotzeko errekurtsoren ukatze ebazpenean adierazitakoa zalantzan jartzeko. Bertan zera adierazi du: *"en el caso que nos ocupa no se aprecia la existencia de una actuación viciada de desviación de poder, en tanto en cuanto, la finalidad de la actuación de la Comisión, en todo caso, ha sido tener el máximo de elementos de juicio para poder determinar, de inicio, la existencia o no del acoso denunciado y proceder en consecuencia. En la actuación de la Comisión no subyace ninguna otra intención"*; eta hori guztia jarduteko moduak eta txostenaren ondorioetariko batzuek adierazitako moduko erreakzioak sor ditzaketela dakigun arren.

* * *

Horren guztiaren ondorioz eta adierazitako oharbideak jarraiki, erakunde honek bere esku-hartzeari amaiera ematea erabaki du ondorio hauetan laburbiltzen duen ebazpen honen bidez.

Ondorioak

Laneko jazarpen moralaren ustezko kasu hau aztertu duen ikerketa batzordeak ez du bere jarduera egokitu Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Aginduan eta sailburu beraren 2007ko urriaren 9ko aginduan xedatutako prozedurara. Lehen aginduak administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen esparruan laneko jazarpen moral eta sexualeko egoeretan bideratu beharreko jardute-prozedura eta prebentzio neurriak arautzen ditu, bigarrenak berriz, Ebazpen Fasean jarduten duen Ikerketa Batzordearen Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia onartzen du.

Gauzak horrela, batzorde horrek, lehen bileran ezin izan zuenez zehaztu gertakariak jazarpen moralaren osagarri ote ziren, jarduera gehiago bideratzea erabaki zuen, ikerketarako xedatutako formaltasunik gabe, eta azkenik txosten bat eman zuen (ondoren Funtzio Publikoko sailburuordearen ebazpenean gaineratu zen eta hasitako prozeduraren ebazpen fasea amaitutzat jotzen da). Txostenaren edukia ez da mugatu lan jazarpenik ez dagoela pentsatzeko izandako arrazoiak azaltzera,



horrez gain, aplikazioko prozeduran ezarritako formaltasunen arabera burututako ikerketa batetik ondorioztatzen ez diren hainbat balorazio biltzen ditu.

Funtzio Publikoko sailburuordearen ebazpen horren berrikuspena sustatze aldera salatuak egindako ebazpen horren bidez ezin izan dira zuzendu antzemandako hutsuneak edo urratzeak. Nolanahi ere, Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren azken aginduaren zentzua ulertuta, aztertutako gertakariak laneko jazarpen moralaren osagarri ez direla ulertzeko erabakia eta berrikuspen prozedura bat praktikan jartzea zaila izateaz gain eragindako alderdi salatuak sentitzen duen kalte morala ordezkatzeko aukera zaila dela baieztatzen duena, kontu honetan izan dugun esku hartzea amaitutzat joko dugu, EAEko Administrazio Nagusiari gomendatuz, laneko jazarpen moral eta sexualaren inguruko ustezko kasuen ikerketarako prozedurei buruzko datozen jardueretan ez dezaten gaineratu euren ondorioen artean eragindako pertsonen inguruko balorazio pertsonal eta profesionalak bideratutako jardueren emaitza frogatua ez badira.

